

32^{nº}
zbk



Beasaingo
Udala

Beasaindik

DICIEMBRE 2018 ABENDUA

Udal Aldizkaria Revista municipal

Pertsonak ardatz dituzten proiektu berriak datorren urteari begira

Un proyecto de presupuestos para mejorar el bienestar de las personas



GUTUNA

Aitor
Aldasoro
Beasaingo
alkatea



PERTSONEN ONGIZATEA BERMATZEA ETA ENPLEGUA SUSTATZEA GURE PROIEKTUEN JOMUGA

Herritarren oinarrizko beharren ardatz dira enplegua eta gizarte ongizatea eta behar horiei erantzute aldera, lehen egunetik arlo soziala eta enplegu sustapena lehenetsi ditugu eta martxan jarri ditugun egitasmoek horiek sustatu eta bermatzea izan dute helburu – Enplegu Plana, gizarte prestazioak, Goiz Alzheimer eta Goiz Zaindu, parke osasungarriak...-. Beraz, enplegua eta ongizatea izan dira gure aurrekontu proiektu guztietan ardatz nagusi eta lehentasun.

2019rako landu dugun aurrekontu proiektuak ere pertsonak ditu helburu. Langabeziān dauden herritarren lan aukerak areagotzeko ekintza desberdinak burutu eta berriak abiaraziko ditugu. Herriko gune ezberdinak indarberitzeko eta tokiko jarduera ekonomikoa sustatzeko helburuarekin landutako Beasain Indarberitu Planetik eratorritako hainbat ekintza zehatz ere gauzatuko ditugu, hala nola, merkataritzako APPa eta erosketak jasotzeko kontsigna digitalak.

Arlo sozialak ere garrantzi berezia izango du datorren urtean, gizarte programa eta prestazioetara diru kopuru handiagoa bideratu dugulako. Zehazki, %10 gehiago babespeko 4. etxebizitza martxan jartzeko, esku-hartze familiarreko programaren bitartez familia gehiago artatuko ditugu aurrekontua

%20 igo dugulako eta etxez etxez laguntza zerbitzuaren kasuan aurrekontua %15 igo dugu adineko pertsonei ez ezik, ezgaitasun fisiko eta psikologikoak dituzten pertsonei ere zerbitzua emateko.

Hori guztila, pertsonen ongizatea eta gure hizkuntza eta nortasuna babestea eta sustatzea helburu duten ekintzak eta proiektuak ahaztu gabe, noski.

Las principales preocupaciones de la ciudadanía llevadas a proyectos

El empleo y el bienestar social son los temas que más preocupan a las y los beasaindarras. Por ello, desde el primer momento hemos elaborado proyectos en respuesta a las inquietudes y necesidades de la población y así lo hemos hecho también de cara al próximo año.

Hemos aumentado el presupuesto de bienestar social y hemos mantenido todas las iniciativas, puestas en marcha durante estos años, ligadas a la promoción del empleo y la actividad económica, entiendo que ello repercute de forma directa en el bienestar de las personas; pero también hemos incluido nuevas propuestas para impulsar la actividad económica local y ofrecer nuevas alternativas en diversos ámbitos a las y los beasaindarras.

IGARTZA MUSIKA BEKA YA TIENE GANADORES

Grandes talentos de la música se dieron cita en Igartza el 17 de noviembre. En total participaron 11 alumnos y alumnas en esta tercera edición que se celebra gracias al convenio suscrito entre el Ayuntamiento y Musikene con el objeto de promocionar la música y dar a conocer nuevos talentos.



Aurtengo Igartza Musika Beka irabazleak: Master ikasleen beka **Pablo Salvador Solari** (Txile), kontrabaxu espezialitatean eta Graduko ikasleen beka **Luis González** (Sevilla) saxofoi espezialitatean.

2019RAKO AURREKONTUAK ONARTUTA

Datu ekonomikoei erreparatuz 16.700.000 euroko aurrekontua izango du Udalak. Inbertsioetarako ia 3 milioi euro zuzenduko ditu eta egindako Kudeaketa eraginkor eta zorrotzari esker ia 10 milioiko soberakina du etorkizuneko beharrei erantzuteko.

UNOS PRESUPUESTOS PENSANDO EN LAS PERSONAS



ECONOMÍA Y EMPLEO

- **Plan de Empleo** y nuevas alternativas de Coworking
- **Nueva web y APP** para el comercio
- **Mercado de productos locales** en Ezkiaga y extraordinario de los sábados

BIENESTAR COLECTIVO y ENVEJECIMIENTO ACTIVO

- **Aumento de inversiones en prestaciones y servicios sociales** (745.000 euros): Servicio de atención domiciliaria (15%↑), intervención familiar (20%↑), viviendas tuteladas (10%↑)
- **Estudio de necesidades de personas de edad avanzada** e implantación detectores de humo en viviendas de personas mayores de 80 años.
- Primer semáforo para personas invidentes y desfibriladores en el municipio
- Servicio de atención a personas que sufren violencia doméstica (**PSE-EE**)
- Proyecto Arana Elkar-Ekin para mejorar la convivencia en la calle Arana
- Baños públicos en Gernika pasealekua
- **Envejecimiento activo**: Goiz Azheimer y Goiz Zaindu, Beasain Lagunkoia, Ondo ibili ondo izan, servicio de orientación deportiva...
- **Igualdad y conciliación**: Herrilab, impulso a la presencia de la mujer en el deporte, estudio antropológico de Iraitz Agirre sobre la mujer en Beasain en el siglo XVI...



CULTURA, EUSKERA Y DEPORTE COMO SEÑAS DE IDENTIDAD

Cultura

- **Activar Bonberia dirigido a la danza**
- **Igartza Musika Programa y Igartza Musika Beka**
- Convenio dantzan.eus y Eusko Ikaskuntza
- Memoria histórica

Euskara

- **Impulso del euskera en el deporte**
- **Colonias de verano**
- **Servicio de refuerzo lingüístico**
- Convenio con **Garabide** para el apoyo a las lenguas minoritarias

Deporte

- **Beasain kirol sariak**
- **Inversiones en el polideportivo**
- Vestuarios **Loinatz** y cambio hierba **Igartza** (previo acuerdo Federación) (**PSE-EE**)
- Nueva zona de **Pump track**



URBANISMO AMABLE, ACCESIBLE Y ADECUADO A LAS NECESIDADES COLECTIVAS

- Proyecto **Gernika pasealekuoa** unido a la peatonalización de Erauskin plaza
- Renovación parque **Dolarea**
- Proyecto “**Cinturón Verde**”
- Mejoras en Igartza Monumentu Multzoa y reforma del estanque
- **Parques** inclusivos (**EH BILDU**)
- Mantenimiento del **Gaztetxe** (**EH BILDU**)
- Compra de local para reubicar Aranealde
- Estudio sobre mejoras en la C/ San Ignacio
- Obras de mejora en **Usurbe Antzokia**
- **Mantenimiento**: parques infantiles, centros escolares, limpieza del río, jardinería...

Todas las propuestas realizadas por los dos grupos de la oposición incluidas

- **Grupo socialista**: Servicio de atención para las personas que sufren violencia doméstica, cambio de hierba artificial en campo de fútbol de Igartza, pintado de barandillas
- **EH Bildu**: Mantenimiento de Gaztetxe, juegos inclusivos, adecuación de entrada a piscinas exteriores y revisión de tasas y estudio psicosocial sobre la situación de las personas de edad avanzada.

Beasain emakumeenganako indarkeriaren kontra



A25 borroka eguna da munduko hainbat tokitan, baita Beasainen ere. Erailketak, eraso sexistak eta mota guztiako egoera matxistak gaitzesteko ekimen ezberdinak antolatu dira aurten ere.

Una vez más, las y los beasaindarras han participado en la actividades organizadas- concentración, madejas contra la violencia machista...-para rechazar y condenar toda acción contra la libertad de las mujeres.

Publicada la memoria histórica de Beasain

Jon Kortazar autoreak, Udalaren babes eta laguntza ekonomikoarekin, "Beasain Oroimen Historikoa" liburua idatzi du. Honek 1900-1945 urte bitarteko gertaerak jasotzen ditu, artxiboko dokumentuak eta herriaren testigantzak oinarri hartuta.

La obra presentada reúne los hechos más importantes acaecidos entre 1900-1945 y está basada en los documentos de archivo y testimonios de personas de la época. Ha sido elaborado por Jon Kortazar con la ayuda del Ayuntamiento de Beasain.



Indarkeriaren biktima guztiak gogoan Memoriaren Egunean



Udal ordezkariek, herriarrek eta senideek Barandiaran parkean egindako lore eskaintza ekitaldian parte hartu zuten gerra garaian erailak izan zirenak, zigortuak, ahaztuak, kanporatuak...guztiak gogora ekartzeko asmoz.

Homenaje, el 10 de noviembre, Día de la Memoria, a las víctimas mediante una ofrenda floral frente a la placa que se colocó en su recuerdo en el parque Barandiaran.

Construyendo el Beasain del futuro con la ciudadanía

Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren garapenean ezinbestekotzat jo du herriaren partaidetza, egungo zein etorkizuneko beharrak kontuan izanik, etorkizuneko Beasaian elkarrekin eraikitzeko.

El Ayuntamiento considera imprescindible la participación de las y los beasaindarras en la elaboración del Plan de Ordenación Urbana para construir el Beasain del futuro de manera conjunta atendiendo a las necesidades actuales y futuras de la ciudadanía.



Kale antzerkia eta musikalean



Udazkena oparoa izan ohi da Beasainen kultur jarduerei dagokienean. Santa Zezilia deunaren omenez, azaroaren 22an, txistulariak eta herriko banda kalera irten ziren Besaingo bazterrak musikaz girotzera.

El otoño suele llegar cargado de actividades culturales para todos los gustos y todas las edades. Porello, las calles de Beasain se vuelven el escenario de obras de teatro infantiles y de funciones musicales.

Euskalde arrakastatsua Beasainen

2.000 partaidetik gora izan ditu herritarren borondateak eragitea helburu duen ariketa sozial honek. Orain ariketa hori urteko gainerako egun guzietara zabaltzeko ahalegin eta urratsa egin behar dugu, euskara gizartera, gure harremanetara eta gure ahoetara ekartzeko, urteko 365 egunez.

Más de 2.000 beasaindarras han participado en esta iniciativa para cambiar los hábitos lingüísticos y la voluntad, sobre todo, de aquellas personas que aunque no saben hablar bien euskera se han animado a participar como Belarriprest.



1º exhibición de atletismo en la calle



Beasaingo Udalak Txindoki Atletismo Taldearekin sinatu duen hitzarmenaren baitan Lehen Atletismo Erakustaldia egin zen Bideluze plazan atletismoa pistetatik kalera ateratzeko helburuarekin.

El 11 de noviembre la plaza Bideluze fue el escenario de diversas pruebas de atletismo con la participación de las y los deportistas más destacados de Gipuzkoa. Esta exhibición se enmarca dentro del convenio firmado por el Ayuntamiento con Txindoki Atletismo taldea para promover este deporte.

Exitsa XXXIV Cata y Concurso de morcilla

Olanorena izan da aurtengo Beasaingo Odolki Dastaketa eta Lehiaketako odolkirik onena. Jende udari bildu zen Gernika pasealekuuan eta aurten, gainera, lehiaketak tokiko eta garaiko produktuen larunbateko azoka bereziarekin bat egin zuen.



Este año el concurso de morcilla organizado por la Cofradía ha coincidido con la celebración del mercado especial de productos locales y de temporada de los sábados. Una vez más, la carnicería Olano ha sido la premiada.

San Martin jaiak Astigarreta auzoan



Motorraren aldeko apustua

Bigarren urtez, motorra ardatz hartuta ekitaldiz beteriko asteburua antolatzen da abenduaren 15 eta 16rako. Aurreko urteko ekitaldiak mantentzeaz gain, ideia berri eta ikusgarriak txertatu dituzte antolatzaileek Udalaren babes eta laguntzarekin, beste urte batez jaialdi honen aldeko apustua eginez, bertako zein bisitarien gozamenerako.

The logo for Beasaingo Motor Asteburua features a stylized red and green graphic followed by the text "BEASAINGO MOTOR ASTEBURUA". Below this, the name "IBON ARREGI" is prominently displayed in large, bold letters. Underneath, it says "Beasaingo Motor Asteburuko antolatzaileari elkarrikzeta". To the right, a photograph shows a smiling man in racing gear, including a helmet and a bib with the number "206", holding up a silver trophy.

Nondik sortu zen tankera honetako jaialdi bat Beasainen antolatzeko idea?

Idea Erauskin igoera berreskuratzetik hasi zen! Egia esan hasiera batean helburua duela 17 urte ospatu zen lasterketa hura errepikatzea zen. Proposamen hau egin genuenean hankamotz gelditzen zela ondorioztatu genuen eta beraz, beste hainbat ekitaldiren inguruan eztabaideatzen hasi ginen. Segurtasuna eta heziketa motor munduarekin gutxitan lotzen diren arloak zirela iruditzen zitzaigun eta ondorioz pixkanaka asteburua osatzen joan ginen.

"La idea de organizar un fin de semana del motor en Beasain surgió de la idea de recuperar la subida a Erauskin que llevaba 17 años sin celebrarse, y pensamos, además, en completar la propuesta con diferentes actividades para acercar el mundo del motor a toda la ciudadanía."

Zaila izan al da horrelako festa bat herri barruan antolatu ahal izatea, izan ere, ia bakarrenetarikoa da, ezta?

Edozein ekitaldik ditu zaitasunak antolatzerako garaian, eta are gehiago herrigunea bada ekitaldiaren kokalekua. Honez gain, guk beste zaitasun garrantzitsu bat eduki dugu, motorrak eta motorra inguratzen duten arlo askok sortzen duten ezinikusia. Gure asmo nagusienetako bat motorren inguruko betiko ideiak baztertu eta astebukaera hau beste era batera planteatzea izan da, motor munduarekiko begikotasuna lortuz.

Horrelako motor munduko festarik aurkitzea zaila da gaur egunean, zaitasun ekonomikoak edota antolakuntzakoak tarteko, eta horregatik uste dugu aukera polita dela Beasaindar eta goierritar guztientzat.

"Hoy día es difícil encontrar una fiesta del motor como esta, por dificultades económicas o de organización, por ello, creemos que es una gran oportunidad para toda la población de Beasain y del Goierri"

Joan den urtean, 2017an, Erauskingo igoera lasterketa berreskuratu zenuten. Zer suposatu du horrek motor zaleentzat, edo oro har, herritarrentzat?

Goierrin motorrarekiko zaletasun haundia dago eta baita lasterketekiko ere, Gabiriako Rallysprinta eta Lazkaon egiten den Goierriko Rallysprinta dira horren adibide. Aurreko urtean ikusi genuen Beasainen ere hainbat urtetan ezkutuan egon den zaletasuna, bai Erauskin igoerak eta baita asteburu osoak ere, berpiztu egin zuela eta hori antolakuntzako kideentzat erabat aberasgarria izan zen.

Herriari astebukaera polit bat eskaintzeaz gain, bertako biztanleen harremanak estutzea ere lortu genuela esan dezakegu adin ezberdinako 100 voluntarioren laguntza izan baikuen.

"En goierri hay una gran afición al motor y la edición del año pasado tuvo una muy buena acogida a pesar del tiempo"

Apuesta a favor del motor

Por segundo año consecutivo Beasain acogerá la fiesta del motor los días 15 y 16 de este mes. Con el apoyo y la ayuda del Ayuntamiento, los organizadores han vuelto a elaborar un programa repleto de actividades: exposición de vehículos clásicos, subida a Erauskin... pero también se han incluido nuevas propuestas que seguro sorprenderán a todas las personas asistentes.

2017ko edizioak izugarrizko arrakasta izan zuen. Zein berrikuntza izango ditu aurtengo egitarauak?

Aurreko urteko ekitaldiak baloratzen hasita oso pozik gaude, eduki genuen eguraldia kontutan harturik jende asko gerturatu baitzen ekitaldi ezberdinetara (Gipuzkoa plazako ikastaroetan 200dik gora parte hartziale zenbatu genituen egun osoan zehar) eta ondorioz aurreko urteko ekitaldi guztiak errepikatzea pentsatu dugu.

Baina motorrak arlo asko dituenez eta horien jarraitzaileak asebetetzeko asmoz aurten hiru berritasun nagusi ditugu:

- Albert Llovera munduko rally txapelketan eta DAKAR-ean lehiatzen ibili den rally gidariaren hitzaldia: 1982n, eskiatzen izan zuen istripu baten ondorioz gurpildun ahulki batean dago eta bere borroka eta adoreari esker gaur egun erreferente bilakatu da motor munduan eta baita motor mundutik kanpo ere. Bere hitzaldietan auto-superazioaren inguruau hitz egiten du eta oso interesgarria eta aberatsa da. Honez gain, rally gidaria izaki, igandeko Erauskin igoerako irteeran izango dugu bere Fiat WRX egokituarekin.
- Ibilgailu klasikoen erakusketa: Historiari ere bere garrantzia ematen diogu eta udaltxeko plaza zein plaza azpia ibilgailu klasikoez beteko dugu.
- Trial ikuskizuna: motorrez baliatuz Bideluzeko plazan sortutako trial zona moduko batean aurkitzen dituzten oztopo guztiak gainditzen saiatuko dira pilotu profesionalak.

Honez gain aipatu beharrean gaude aurreko urtetik errepikatuko ditugun ekitaldiak: umeentzako bide heziketa Gernika pasealekuko frontoian (kart elektrikoak baliatuz umeek errepideko arauetan lehen harti emana izan dezaten), segurtasunez gidatzeko ikastaroak Gipuzkoa plazan

(egunero errepiidean aurki ditzakegun arazoan aurrean zein portaera edo erabaki hartzeko test praktikoa) eta V. Erauskin igoera igandean, irteera herri-erdigunetik eginda..

“Debido a su éxito, este año repetiremos las actividades de educación vial para niños y niñas, los cursos para conducir de forma segura y la Vº Subida a Erauskin. Pero también habrá importantes novedades: conferencia del conductor de rallies Albert Llovera, exposición de coches clásicos y espectáculo de trial”



Besterik gehitu nahi?

Ekitaldi guztiak doakoak izaki, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu kalera irtetera eta parte hartzen, zaletasun handirik eduki gabe ere beraien txokoa aurkituko dutelakoan baikaude. Umeek zein helduek gozatzeko aukera dute, beraz animatu!

Bestetik eskerrak eman nahi ditugu lagunza eskaini diguten guztiei: Udalari, lagunza eta babesagatik, babesleei, ekonomikoki posible egiteagatik eta voluntario guztiei, egindako eta egingo duten lan eskergagatik.

Eskerrik asko denoi!

“Todas las actividades son gratuitas, por lo que animamos a todas y a todos a participar, y quiero agradecer al Ayuntamiento, a los patrocinadores y a los más de 100 voluntarios que nos ayudan ese día, todo su apoyo, sin el que este fin de semana no sería posible”

**ABENDUAK
DICIEMBRE 28 | 19:00**

BEASAIN
KIROL SARIAK 2018



**ABENDUA DICIEMBRE
14-15-16**

Euskal liburu eta disco azoka
Feria del libro y el disco vasco
GERNIKA PASEALEKUA

DATUEKIN JOLASEAN



Zenbat AHOBIZI eta
zenbat BELARRIPREST
izan ditugu?

Guztira 2.411



1.965

AHOBIZI

446

BELARRIPREST



LOTURAK ENLACES



- **Antzizar kiroldategia**
www.antzizar.net



- **Udal Euskaltegia**
www.beasain.eus/euskaltegia



- **kzGunea**
www.kzgunea.eus



- **Igartzako Monumentu Multzoa**

www.igartza.eus



- **Musika Eskola**

www.beasaingomusikaeskola.eus

Lege gordailua SS 403-2016



www.beasain.eus



Beasaingo Udala